

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERANTEVILLAKO UDALA

Jendaurrean jartzea eta kobratzea Berantevillako industrialdeko ur horniduraren eta saneamenduaren tasa. 2024ko lehenengo eta bigarren hiruhilekoak

I. Jendaurrean jartzea

Berantevillako industrialdea edateko urez hornitzeko eta saneamendurako tasari dagozkion 2024ko ekitaldiko lehenengo eta bigarren hiruhilekoetako kontribuzio erroldak egin dira, eta Alkatearen 231/2024 Dekretuaren bidez onetsi dira.

Errolda jendaurrean egongo da hamabost eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eraginpeko zergadunek aukera izan dezaten errolda aztertzeko eta, hala badagokio, egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Kontribuzio erroldak jendaurrean jartzeak haien likidazioen jakinarazpen bateratua egitea du helburu, hala egin behar dela xedatzen baitute Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98. artikulua 3. apartatua eta Kudeaketa, Dirubilketa eta Ikuskatzearen udal zerga ordenantza orokorrak 2.1 artikuluan.

Erroldak eta haiei erantsitako likidazioak onesten dituen egintzaren aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio alkateari, hilabeteko epean, haiek jendaurrean jarri ondorengo egunetik aurrera.

II. Kobratzeko aldia

Borondatezko aldiko dirubilketa epea bi hilabetekoa izango da; hain zuzen ere, 2024ko urriaren 30etik abenduaren 30era.

Borondatezko aldiko dirubilketa amaiturik, ordaindu ez diren kuotetarako, betearazte aldia hasiko da berez eta besterik gabe. Horrek berekin ekarriko du berandutze interesak eta dagozkien errekareruak eskatzea, Zergen 6/2005 Foru Arau Orokorrak 26. eta 28. artikuluetan ezarritakoaren arabera, bai eta premiamendu prozeduraren kostuak ere, bidezko denean.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak 2024ko azaroaren 11n igorriko dira lehen hiruhilekoari dagozkion ordainagiritarako, eta 2024ko abenduaren 9an bigarren hiruhilekoari dagozkionak.

Helbideratu gabeko ordainketetarako, zergadunei udalaren bulegoetan entregatuko zaie ordainagiria, dirua Kutxabankeko bulegoan edo transferentzia bidez sar dezaten.

Zergadunei ohartarazten zaie komenigarria dela beren zerga zorrak banketxe edo kutxetan helbideratuta izatea. Banku helbideratzeetako altak edo aldaketak, bai eta hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak ere, Berantevillako Udalean izapidetu beharko dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Berantevilla, 2024ko urriaren 22a

Alkatea

ISABEL ARBAIZAGOITIA PERAL